



ILUSIOA ZABALTZEN
DUTEN IPUINAK

bibliotecainfantil.fundaciononce.es



1

Amador AKTOREA



2

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimatu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.



3

GARUNEKO PARALISIARI BURUZ

Garuneko paralisia burmuinean zauria
IZATEA BEZALAKOA da, eta munduko
 haurtxo askok daukate.

Ez du minik egiten, baina oso zaila da **mugitzea** edo
zutik egotea. Batzuek makuluak erabiltzen
 dituzte, beste batzuek, berriz, gurpil-aulkia. Ume
 horiek ez dira zure modukoak, eta giharrak
 kontrolatzea kostatzen zaienez, batzuetan
EZIN DUTE ONDO HITZ EGIN.

Nahiz eta era desberdinean egin, oso zoriontsu
 bihurtzen dituen milaka gauza ikas ditzakete.
 Garuneko paralisia duen norbait ezagutzen baduzu,
 ez zalantzarik eduki eta egin zaitez haren **LAGUN.**

Inork ez bezala baloratuko zaituen
 lagun bat aurkituko duzu.

4


Gaur goizean, nire lehengusu
INAZIOREN baloia bezain
handia den buruko min batekin
esnatu naiz.

EZ DA BALOI NORMAL BAT.

Ez dakit zenbat neurtzen duen
zehazki, baina benetan
erraldoia da. Edo hala uste
dut nik behintzat...

EGIA ESAN
NIRETZA.

5



Jaio nintzenean, aita eta amari
esan zieten ibiltzea eta hitz
egitea *kostatuko*

zitzaizkidala, eta, beraz, luzaroan

**EGON BEHAR DUT
ESERITA.**

Baina ez zait inporta,
altuera honetatik
guztia baita

handiagoa eta politagoa.

6

Pentsatzen egongo zarete zergatik dudan buruko mina. Gauza da atzo berandura arte egon nintzela nire papera birpasatzen.

AH! Barkatu, ez dizuet oraindik kontatu **AKTORE** izateko prestatzen ari naizela, eta gaur estreinatzen dut

NIRE LEHEN ANTZERKIA.



Amak esaten dit lan egonkorragoren bat bilatu beharko nukeela (nik uste beste gauza batera dedikatzea nahi duela), baina ezin dut.

Nik odolean daramat eszenatokia, eta ez naiz geldituko

MUNDUKO ANTZOKI GUZTIETAN EGON ARTE!



7



Gaur estreinatzen dugu eskolako antzerkian, eta rol nagusia eman didate. **Printze txikia** izango naiz! Ezagutzen duzue *Antoine de Saint-Exupéry* idatzi zuen obra hori?

Bikaina da. Ni erabat identifikatzen naiz pertsonaiarekin. Nik uste antza daukagula, eta horrek errazago egiten du papera **interpretatzea.** noski.

Dena prest daukagu, ileordea, jantziak, testua, baina **NERBIOAK** jota nago.

8



Nire lehen emanaldia da, eta

DARDARKA eta **larri** nago, baina alai eta pozik aldi berean. Hortaz, normala izan behar du buruko mina izatea. Aitak behin eta berriz esaten dit.

Nik uste Printze txikiak buruko minak edukiko zituela ere. **BAOBAB** zuhaitzak hazten planetan, sumendiak garbitzea, haren arrosa delikatuaren beharrak...

Agian, horregatik alde egin zuen

UNIBERTSOAN ZEHAR BIDAIATZERA...



9

Nik, Printze txikiak bezala,
izugarrizko gogoak ditut

bidaiatzeko eta beste
leku batzuk ezagutzeko.

Ainda que todo o que quero o teño aquí, coa miña

NIRE GURASOEKIN, eta **jakina**

nire lehengusu

Inazioarekin aloi handiaz aparte,
gorputz erraldoia ere baduena.



10

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu.
Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Inazio beti dago nirekin. Barre egiten duenean, TRUMOIA JO DUELA dirudi, baina trumoi bigunak.

Pentsatu dugu nirekin etorriko dela birak egiten ditudanean. Gehienetan, pentsatzen dudana asmatzen du,

ezer esan ez arren!



11

Printze txikiaren azeriak bezala, BIHOTZAREN BEGIEKIN begiraten dit, horrekin bakarrik ikusten baitira benetako gauzak.

Horregatik, adorea behar dudanean, Inaziok sumatzen du, eta belarrira xuxurlatzen dit astiro:

Amador, zu zara aktorerik onena.



12

DinA4 edo DinA3 neurria duen orri batean inprimitu ezazu. Kolorea eman eta lerro jarraitik moztu. Lerro etenetik doblatu.

Eta orduan, **BADIRUDI PUBLIKOA**
ENTZUN DEZAKEDALA
 eserlekuetan eserita, xuxurlaka eta eztulka.



ANTZERKIA HASTEKO ZAIN DAUDE.

Argiak itzali eta oihala
 irekitzen denean,
 dena hasiko da niretzat.

13



amaiera

14